



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 4an

90 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeko prozesua arautzen duena. Atzera bidalitako osoko zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena. Atzera bidalitako osoko zuzenketa (2. or.).
- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena. Proposamena defendatuko duten foru parlamentariak izendatzea (4. or.).
- Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena. Proposamena defendatuko duten foru parlamentariak izendatzea (4. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofia ospitalean hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkuraren baimena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko gobernuak premiatzen da Espainiako atzerritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da isurketa kutsagarriak ingurumenaren ikuspuntutik zaintzeko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzekeo prozesua arautzen duena

ATZERA BIDALITAKO OSOKO ZUZENKETAK

Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 26an egindako bileran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak eta foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzekeo prozesua arautzen duen foru lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak atzera bidali zutela jakitun zegoela adierazi zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro Batzordera igorri da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proiektua, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

ATZERA BIDALITAKO OSOKO ZUZENKETA

Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 26an egindako bileran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen foru lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa atzera bidali zuela jakitun zegoela adierazi zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Gizarte Gaietako Batzordera igorri da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak garapenaren aldeko lankidetzari buruzko foru lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Gizarte Gaietako Batzordera igorri da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena

PROPOSAMENA DEFENDATUKO DUTEN FORU PARLAMENTARIAK IZENDATZEA

2000ko urriaren 26an egindako bileran, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena defendatzen ondoko foru parlamentariak izendatzea:

– Isabel Arboniés Bermejo andrea.

– Juan José Lizarbe Baztán jauna.

– Carlos Cristóbal García jauna.

Biltzarreko 112.1 artikulua xedatutakoarekin bat, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

PROPOSAMENA DEFENDATUKO DUTEN FORU PARLAMENTARIAK IZENDATZEA

2000ko urriaren 26an egindako bileran, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena defendatzen ondoko foru parlamentariak izendatzea:

– Virginia Izquierdo Barásoain andrea.

– Isabel Arboniés Bermejo andrea.

– Juan Cruz Alli Aranguren jauna.

Biltzarreko 112.1 artikulua xedatutakoarekin bat, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

D saila:
HITZARMENAK

Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartze-ari buruzkoa

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartze-

ari buruzkoa". Haren testua 2000ko irailaren 25eko 74 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez

Erabaki da Espainiako Gobernuak premiatzea:

1. Mugen kontrola indartu dezan, bereziki itsasartean eta Kanariar Uharteetan, eta baita legez kanpoko inmigrazioko mafien aurkako zainketa eta jarduna ere.

2. Legez kanpoko etorkinentzako Larrialdi Zentroak sortzeko politika bat gara dezan, pertsona horien giza eskubideak errespetatu daitezkeen beraien aberriratzea izapidetzen den bitartean, eta, beharrezkoa bada, letradunen laguntza eskatu ahal izan dezaten, asilo edo babesa eskatzen badute.

3. Inmigrazioa jatorrian bertan arau dezan, gure inguruko hegoaldeko herrialdeekin hitzarmenak eginez eta erabakiak hartuz. Arauketa hori egiten da autonomia erkidego eta ekonomia sektore bakoitzeko behar diren etorkinen kopurua planifikatuz, enpresa arloko erakundeekin lankidetzan.

4. Autonomia erkidegoekin eta toki korporazioekin koordinazio plan bat presta dezan. Plan horren helburu izanen dira: etorkinen gizaratzea, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna finantzatzea; urtero behar diren etorkinen kopurua eta horiek eskatzen dituzten ekonomia sektoreak planifikatzea; lan-kontratuen baldintzak edo, hobeki esanda, horien gabezia ikuskatzea, horixe baita gertatzen ari den arazo larrienetakoa, legez kanpoko etorkin langileen gaineko gehiegikeriak saihesteko; familiak elkartzea, etorkinak gizartezatzeke.

5. Epe ertaineko garapen politika bat abia dezan, hegoaldeko herrialdeekin eta etorkin gehien eragiten dituzten herrialdeekin.

6. Lagundu gabeko eta dokumenturik gabeko adingabeei buruzko berriarazo politika baten plangintza egin dezan. Adibidez, adingabekoen zentro Larrialdiko Harrera Zentro berriarazkoak sortzea, Hautzaroa babesteko Hagako Hitzarmena, Nazio Batuen Goi Komisariatuaren errefuxiatuentzako jarduketa irizpideak eta lagundu gabeko adingabeei buruzko Europako Batasunaren Erabakia begiratu.

Erabakia. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzerritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzerritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzerritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du elkarbizitzaren arlo guztietan gizarteen kontzientziazioa sustatzeko, etorkinei abegi egiteari begira eta Estatu osatzen duten komunitateetan bizi eta lan egiten duten atzerritarrek gizartean integratzeko politika aktiboak gara daitezen errazterari begira ere.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da isurketa kutsagarriak ingurumenaren ikuspuntutik zaintzeko plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da isurketa kutsagarriak ingurumenaren ikuspuntutik zaintzeko plan bat egin dezan".

Biltzarrak, 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 29ko 45 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--